

datarren urtean gauza beretsua antolatu nahi da Firenze-n Euskal Artisten, Euskal Kulturaren eta Euskal Herriaren inguruan. ■ *Paulo Agirrebaltzategi.*

Jokin Zaitegi hil zaigu

Aldizkariaren zenbaki honen azken egitekoak burutzen ari zirela heldu zaigu Jokin Zaitegi jaunaren heriotze albistea (Oñati, 1979-abuztua-17). Goian bego, urtetan eta bere bizitza osoan euskararen alde hainbeste lan egin duen gizona.

Dirudienez, euskal kultur-langile gazteenek gehiegi ezagutu ez badute ere, asko gara geure buruak haren zordun aitortzen ditugunak.

Hiru alorretan joan da, bereziki, Zaitegiren lana: 1) olerkian, 2) grekotiko euskal itzulpenetan, eta 3) «Euzko Gogo» sortu eta aldizkariaren gorabehera guztiak gidatzen (1950-1960). Jokin Zaitegiren lana gaitza izan da, ez luma langilea izan zuelako bakarrik, baita, bere eta askoren lanak kaleratzeko, dirutan eman zituen izerdiengatik ere.

Haren idazlanik ezagunenak hauetxek ditugu, han-hemenka sakabanaturik dauden idaztifo eta artikuluak jaso gabe:

1945, Guatemala: Longfellow-ren *Ebangeline*.

1946, México: *Goldaketan*. Olertia.

México: *Sopokelen Antzerkiak* (I).

1955, Zarautz: *Bidalier Eginak*.

1958, Baiona: *Sopokelen Antzerkiak* (II).

1962, Donostia: *Platoneneko Atarian*.

Guatemala: *Berriz ere goldaketan*. Olertia.

1963, Donostia (Egan): Euripides-en *Medeia*.

1975, Arrasate: *Platon* (I): *Oturuntza, Protagora, Menon*.

1977, Arrasate: *Platon* (II): *Gorgia*.

1978, Arrasate: *Platon* (III): *Eufitron eta Sokrateren apologia*.

Arrasate: *Platon* (IV): *Kriton eta Faidon*.

1979, Arrasate: *Platon* (V): *Ipia txikia eta Alkibiada*.

Ongi irabaziak ditu Jokin Zaitegik euskaltzaleon oroitzapena eta eskerrona. Hurrengo zenbakian emango dugu Zaitegiren zenbait lanen berri zehatzago bat. ■ *Joseba Intxausti.*

Hiru kultur gizon gutiago: Oñatibia, Zaitegi, Zarate

Hiru gizon galdu ditugu azken hilabeteotan, hiru euskaltzale, hiru kultur gizon. Euskararen alde bere bizia eman dute hirurek.